

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko JI 03 Jarduketa Integratuaren eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) hasierako onespena.**

Basauriko Alkateak, 2023.eko azaroaren 29ko 4184/2023 zenbakiko Dekretuaren bidez, hasierako onarpena eman zion Basauriko JI 03 Jarduketa Integratuaren eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari (HAPB). Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

*Lehenengoa:* Hasierako onspena ematea Coordinadora de Recursos Empresariales Ariz SLk (IFK B 95161352) aurkeztutako JI 03 Jarduketa Integratuaren eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari (HAPB), aurkeztutako agiri teknikoari dagokionez. Hasierako onspen hori ingurumen-txosten estrategikotik ondorioztatzen denaren mende egongo da.

*Bigarrena:* espedientea jendaurrean jartzeko epea irekitzea. Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratuko da, interesa duen edonork espedientea aztertu eta alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan 20 eguneko epean, 20 eguneko epean, azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Espedientea interesdunen eskura egongo da udaletxeko iragarki oholean eta egoitza elektronikokoan <https://www.basauri.net>

*Hirugarrena:* Interesatuei ebazpen honen edukia jakinaraztea.

Basaurin, 2023.eko azaroaren 30ean.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren